

Toots & The Maytals Bilbao Tropikalean izango dira

Diru murrizketa izan arren, kalitate maila mantentzea lortu du jaialdiak

Iker Gomez / Bilbo

Aurten, Bilbao Tropikalak hiru eguneko iraupena beste-rik ez du izango. Aurreko urteetan bost egun izan baziren ere, Bilboko Udalak jaialdiari ematen dion diru kopurua murriztearen ondorioz, egun kopurua ere gutxitu egin behar izan dute. Udaleko Kultura arduradunak, Jose Luis Sabasek, «lehentasun» arazoa izan dela dio.

BILBAO TROPIKALA antolatze-ko lan taldeko partaide Javier Corralek, «kalitate maila mantentzea» lortu dutela esan zuen atzo. Uztailaren 14tik 16ra bitartean, Bilbon ospatuko duten bosgarren jaialdira sona handiko izenak ekarriko dituzte.

Besteak beste, uztailaren 14an Toots and The Maytals taldeak, Jamaika haien jaioterriko doinuak eramango ditu Bilboko Doña Casilda parkera. Taldeak 35 urte daramatza ska eta reagge-soul egiten. Toots Hibbert da taldeko burua. Taldeak arrakasta nabarmena izan du bere ibilbidean, eta Euskal Herriko zenbait taldek ere Toots and The Maytalsen bertsioak egin dituzte. Adibide modura, Negu Gorriak, Potato edota Kortatu aipa daitezke. Azken talde horren *Sarri Sarri* kanta ospetsua Jamaikakoen bertsioa da.

Uztailaren 15ean kontzertu bikoitza izango da. Grupo Raizes do Timbal talde brasildarrak hasiko du ikuskizuna. Taldekideek capoeira erakutsiko dute egun horretan, musika, akrobazia, dantza eta borrokako arteak biltzen dituen nahasketa, alegia. Haien ondoren, Cheikh Lo

Burkina Fassoko musikariaren doinuak izango dira. Afrikan izar bilakatzen hasia, hango doinuak, latinoak, eta pop musika nahasten ditu.

Erritmo latinoak iganderako

Azkenekoa, igandea alegia, da egunik «latinoena». Kubatik Ribalta y su Guararey taldeko 12 musikariak erritmo anitz nahastuko dituzte. Besteak beste, tinba kubatarra, son tradizionala, manboa, *guaracha*, *merengue* eta *ballenatoa*.

Aurtengo diru murrizketa, Bilboko Udalean Kultura Arloko arduradunak, Jose Luis Sabasek adierazi zuenez, «lehentasun» arazoa izan da. «Ez genuen Bilbao Tropikala Jaialdiaren desagerpena nahi, baina aurtengo Bilbok 700 urte betetzen ditu, eta hilabeteotan hainbat ekitaldi kultural prestatu behar ditugu». Bestalde, Javier Corralek, datorren urtera begira «aurrekontua berriro ere egoera normalera» egokitzea espero du. Iaz, 50 milioi pezetako laguntza eman zuen Udalak. Aurten, berriz, 15 milioi besterik ez. Iaz, guztira, 15.000 ikusle izan ziren.

laburrean



JUAN HERRERO / EFE

Tinieblas Gonzalezek Poe-ren inguruko filma osatu nahi du. *Roots* bere lehen film luzerako gidoia idazten ari da Tinieblas Gonzalez zinemagile arabarra. Halaber, Edgar Allan Poe idazle estatubatuararen bizitzaren inguruko filma, edo Poeren beraren obraren baten ingurukoa, egitea aztertzen ari da. Horretarako, bi proiektu ditu eskuartean, produktora banak babestuak.

A N T Z E R K I A

■ **Kale Antzerkiak Guggenheim inguruak alaituko ditu**
GUGGENHEIM museo ondoan kokatuta dagoen edukion-tzi geltokian, ostegunero kale antzerki ikuskizunak antolatu ditu Renfe enpresak. Gaur, 20:00etan, Visitants Castelloko taldeak *Esculturas humanas* ikuskizuna emango du. «Gure jaioterriko historia kontakutzen du lanak», Tomas Ibañez zuzendariak atzo azaldu zuenez, Ekainaren 15ean, berriz, La Danaus konpaini espainiarrak *DVA* lana aurkeztuko du. Ekainaren 22an, Markeliñe euskal taldeak *Alo Europa* ikuskizuna antzeztuko du, eta ekainaren 29an, Castelloko Scura taldea ariko da.

■ **Flotatsek 'Arte' komedia aurkeztuko du Bilbon**
YASMINA REZA idazlearen testuan oinarritu da Josep Maria Flotats aktore eta zuzendari katalana, *Arte* antzez-lana osatzeko. Flotats bera da lan horretako zuzendaria eta aktoreetako bat. Gainerako bi aktoreak Carlos Hipolito eta Jesus Castejon dira. *Arte*-k oihartzun handia izan du orain arteko emanaldietan, eta sari ugari jaso ditu. Samurtasuna, zorrozatasuna eta ironia nahasten ditu.

Pirineo Sur jaialdiak mundu osoko «herri musika garaikideak» aurkeztuko ditu

■ *Buena Vista Social Club*, *Ali Farka Toure* eta *Rachid Taha* izango dira, besteak beste

Jon Eskisabel / Donostia

PIRINEOS SUR jaialdiak 87 milioi pezetako aurrekontua —3,4 milioi libera inguru— izango du aurten, 20.000 ikusletik gora erakartzea espero du uztailaren 7tik 29ra bitartean. Azken urteetan ikusleen %18 Euskal Herrikoa izan da, Luis Calvo zuzendariak atzo Donostian esan zuenez,

Huescako Tena bailaran egiten da Pirineos Sur, Lanuzako urtegiaren eta Sallent de Gallego herrian hain zuzen ere. Mundu osoko kultura aniztasuna erakusteko xedearekin sortu zen orain dela bederatzi urte, Huescako Diputazioaren babespean. Musika jaialdia da nagusiki, baina haren inguruan tailerrak, azokak eta erakusketak antolatzen dira Pirinioetako paraje zoragarri horretan.

«Herri musika garaikideen jaialdia» da Pirineos Sur, Luis Calvoren hitzetan. «Hiru binomiok definitzen dute jaialdiaren izaera: tradizioa-modernitatea, teknologia-etnografia eta balore berriak-balore ezagunak».

19 kontzertu eskainiko ditu Pirineos Surrek. Lanuzako urtegiaren jarritako eszenatoki flotantean joko dute, besteak beste, Femi Kuti, Rachid Taha, Ali Farka Toure, Zebda, Fun'Da'Mental, Dulce Matias, Buena Vista Social Club, Afro Cuban All Stars, Bisso na Bisso eta Emir Kusturica & The No Smoking Orchestra. Sarrerak Donostiako Xaribarin eta Bilboko Urretxindorran eros daitezke aurretik. Bonoa 15.000 pezetan/600 liberan da salgai.

IRAGARKI MERKEAK

9 4 3 3 0 0 2 2 2

**66 x 69
4 MODULO
(Edizio orokorra)**

Eguna: **11.600**
Astea (6 egun): **8.800**
2 aste (12 egun): **8.000**
Hilabetea (24 egun): **5.600**

**31 x 33 mm
MODULO
(Iparraldea)**

Eguna: **88 l.**
Astea (6 egun): **82 l.**
2 aste (12 egun): **69 l.**
Hilabetea (24 egun): **55 l.**


31 x 33 mm

OPORRAK BELAUNTZIAN
12m. luzera
UDAKO ITSASKETAK
UZTAILA LEHEN-MEDITERRANEOA
4 PLAZA
ABUZTUA KORSIKARA
2 PLAZA
IRAILA BALEARRETIARA
4 PLAZA
630.03.08.98

**31 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)**

Eguna: **2.900**
Astea (6 egun): **2.200**
2 aste (12 egun): **2.000**
Hilabetea (24 egun): **1.400**

NAIROBITARRA



ABUZTUAK 2tik 30ra

OZEANO BATETIK BESTERA

... oraindik leku batzuk badaude

Tel.: 94 424 00 11

